

# Nudismoa zure askatasunetako bat da

**1978an, gaur egungo Karta Konstituzionala indarrean jarri zenetik, nudismoa gure askatasunetako bat izango zela ondoriozta zitekeen**

Baina, artean, garai frankistaren herentzia ziren jendaurrean nudismoa egitearen kontrako legeak genituen. Besteak beste, nudismoa zigortzen zuen eskandalu publikoa zeritzon delitua indarrean zegoen. Egoera horren ondorioz, eremu baimenduak ezarri ziren, zigorrik jasotzeko beldurrik gabe nudismoa aske egin ahal izateko. Delitu hori 1898an aldatu egin zen eta moralari dagozkion alderdiak kendu egin ziren, Konstituzioari egokitze asmoz.

Beraz, hondartza edo eremu naturistetarako baimen guztiak 1989an aldatu zen Konstituzioaren kontrako legeetan oinarritzen ziren. Gero, 1995ean, lege horiek desagertu egin ziren, Kode Penal zaharra indargabetu eta gaur egun indarrean dagoen eta aipatutako deliturik biltzen ez duen Kode Penala ezarri zenean. Horrela, **baimen –eta debeku- guztiak Konstituzioaren kontrakoak dira eta diskriminazioa dakarte.**

Harrigarria da, lehenbiziko nudistei justiziarekin topo egin gabe eremuak disfrutatzeko baimenak, gerora, nudismoaren kontra erabiltzen diren argumentu nagusia izatea, zeren, *eremu edo hondartza baimenduak daudenez, gainerako hondatzetan, baimenduta ez dagoenez, debekatuta dagoela uste izan baita.* Eta hori **gezurra da.**

**Orain nudismoa aske egin daiteke edozein eremu publikotan eta, horretarako, ez da inolako baimenik behar.**

**Eremu publikoak hondartzak, ibaiak, lakuak, zelaiak, bideak, errepideak, kaleak, plazak, parkeak, etab. dira.**

Udal-kiroldegiak edo jendaurreko lokal komertzial irekiak (tabernak, dendak, etab.) **ez dira** eremu publikoak. Eremuok barne-arauak izan ditzaketen eremu pribatuak dira.

Hondartza guztiak eremu publikoak direnez, **dentan** askatasunez egin daiteke nudismoa.

Bestelakoa da, kontu horrek izan dezakeen **gizartearen aldeko onarpen-maila** eta nudismoa egiteagatik izan ditzakegun arazoak, arropa erabiltzen duen gehiengo duen gizartearengandik nudismoak jasaten duen zapalkuntzaren ondoriozko arazoak, alegia.

Argi izan behar dugu honako alderdi garrantzitsu hau: **gaur egun indarrean dauden legeen arabera, nudismoa ezin da mugatu, ezin da zigortu eta ezin da, ezta gutxiagorik ere, debekatu.**

Hori alda daiteke, jakina, zeren, nahikoa bailitzateke neurri horiek aplikatzeko legea ezartzea, lege hori Karta Magnan biltzen diren oinarrizko eskubideen eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean onesten diren eskubideen kontrakoa izanda ere.

Nudismoa bizitzeko **filosofia, ideologia** dela kontzientziatu beharra daukagu, **taldearen kontzientzia hartu behar dugu** eta **gogor diskriminatutako taldearena**, gainera. *Gure askatasunetako bat denaren kontzientzia izan behar dugu eta erabat indarrean dauden legeen arabera dela jakin behar dugu. Ezin zaio askatasun horri isunik ipini eta, isuna ipiniz gero, errekurtsioa jar daiteke; nudismoaren eta gure askatasunak hausteko asmoa duen edozein lege-garapenaren aurkako edozein isun salatze eta horren kontrako errekurtsioa jartzeko prest egon behar dugu.*

**Demokrazian egonda ere diskriminazio gogorra jasaten duen gizarte-taldea gara, ezin baikara askatasunez aditzera eman.**

**Nudismoa demokraziaren beraren eta zuzenbidezko estatuaren oinarrizko zutabeetan datza:**

- **Nork bere ideiak izateko askatasunean.**
- **ideien edo egoera pertsonalen**
- **aurkako diskriminaziorik ez izatean,**
- **adierazteko askatasunean,**
- **lurralde osoan zehar inolako mugarik gabe ibiltzeko askatasunean,**
- **iritzien arabera askatasunak ez mugatzean,**
- **gure seme-alabak gure moralaren arabera hazteko eskubidean (moral hori legearen arabera den bitartean... eta nudismoa legearen arabera da),**
- **nork bere irudia eta janzkera izateko, edo jantzirik ez erabiltzeko eskubidean,**
- **eta arautu gabe dagoena legez kontrakotzat ez jotzean; kontrako esaten ez den bitartean dena legez kanpokotzat jotzea diktadurei dagoen eta ez estatu demokratikoei.**

Gaur arte inork ez du nudismoaren aurkako egiazko argumenturik azaldu. Estetika, dotoretasuna... aipatu izan dira, berez deuseztatzen diren argumentuak, alegia. Eta, batez ere, arrazoi moralak argudiatzen dira eta morala Konstituzioan bildu eta babestu egiten da.

... Zehazki esanda, Konstituzioaren arabera, **moral-tasun guztiak berdinak dira** eta, legearen kontrako ez den bitartean (eta nudismoa ez da) ezin da besteen gainetik moralik egon.

Guk adierazteko askatasuna dugu eta gure nudismoa, gure ideologia eta bizitzeko filosofia adierazi egin ditzakegu, legearen kontra jarduten ez garen bitartean... nudismoaren aurkako legerik ez dagoenez, **gure nudismoa askatasunez adierazteko aukera dugu.**

Inoiz, nudismoa egiteagatik,  
arazoren bat baduzu,  
**ez izan zalantzarik eta  
guregana jo ezazu.**



*Euskal Naturista Elkarte*  
*Asociación de Naturistas Vascos*

**Apdo. Correos 22  
48250 Zaldibar (Bizkaia)**

**649.78.11.38**

**<info@ene-naturismo.org>**

**<http://ene-naturismo.org>**

Aldaketaren bat egitea komeni dela uste  
baduzu, bidali guri eta dokumentu  
zehatzagoa eta informazioa gehiago  
duena lortuko duzu. Azken bertsioa  
gure web orrian bilatuko duzu.

**Ezagutzen dituzun naturistei  
informazioa eman egiezu webaren  
bertsioa inprimatuz edo  
fotokopiatuz.**

**Orain, nudismoa legezkoa da, baime-  
naren beharrik gabe eta argudio hori  
gure alde erabili behar dugu, baina  
polizia agertzen bada eta gure esku-  
bideak hausten badituzte, honako  
hau egin behar duzue:**

Polizia etorri eta jantzeko eska diezazuekete eta horrek ez dakar arau-hausterik. Zuek ezetz esan dezakezue eta horrek ere ez du inolako araurik hausten.

Jantzeko eskatzen badizuete, **ezetz esan dezakezue, baina oihurik eta mehatxurik** edo antzekorik egin gabe.

Zure etxean bazaude ezin dizute ezer esan. Norbere etxea ezin da bortxatu. Eremu publikoan bazude, ez zaude etxean bezain babestuta, baina berdin dio.

Horrelakoetan, ezetz esaten duzuenean, eurek ekin egin dezakete, identifikatzeko eskatzeko aukera daukazue eta eurek identifikatu egin behar dute, nahitaez, identifikatzen ez badira, horrexegatik, besterik gabe, salaketa jar dezakezue.

Gero, ez zaretela jantziko eta, indarrean dagoen legearen arabera, biluzik egotea gure askatasunetako bat dela esan diezaiekezue. Zein legeren arabera ari diren azaltzeko eskatu behar diezue. Azalpenik ematen ez badizuete, ekin.

Eurek ekiten badute, ez zaretela jantziko eta, nahi badute, atxilotzeko esan diezaiekezue. Horrelakorik jasateko prest egon behar duzue, baina hori bakoitzak ikusi behar du.

Atxilotzen bazaituzte: **ez diezue kontra egin behar** eta komisarian zaudetenean, eginbideak egiteko eta kopia bat emateko eskatu behar diezue. Nahitaez egin behar dute; beraz, ekin egin behar duzue. Ezetz esaten badizuete, arrazoi horrengatik salaketa jar dezakezue. Eginbideak ematen badizkizuete, atxilotu zaituzten agenteen aurka salaketa jartzeko erabil ditzakezue, **legez kanpo atxilotzeagatik.**

**Planteamendu hori oso gogorra da,  
zeren egoera latza jasateko prest  
egon behar baituzue, feministek  
beren garaian jasan behar izan zuten  
egoeraren antzera, adibidez.**

**Jantzeko eskatuta, ezetz esatea zigo-  
rrezina da, desobedientzia-falta gisa.**

Legeren bat dagoela esan diezazukete. Lege hori egotekotan, seguraski, udal-legeren bat izango da. Horrelakoan, eurek bete egin behar dute, baina lege hori ez da zilegi eta isunaren bat ipiniz gero, isun horren edo egiten duten guztiaren aurkako errekurtsoa jar daiteke.

Udalek onespren legala behar dute zigorrak ezartzeko. Zigorra ezartzeko, zigor hori adierazten duen Legeren baten arabera izan behar du, eta Udaletxea ez du inoiz eskumenik onesten duen legearen arabera ez den isuna jartzeko. Nudismoari dagokionez, ez dago horrelako legerik.

Agian, **eskandalu publikoagatik** salatzen mehatxua egin dezakete. **Horrelako deliturik ez dago,** dagoeneko. Kode Penaleko zein artikulutan agertzen den azaltzeko eskatu. Horrelako deliturik ez dagoela esan eta ez daukazuela zertan jaramonik egin.

Egiazko delituaz mehatxa gaitzakete, hots, "Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa" (Kode Penaleko 185. art.), **adinik gabekoak** daudela esanez. Lege hori aplikatzeko, honako baldintzak bete behar dira: umeen edo adimen urrikoen aurrean egoitea eta hirugarren bat probokatzeko edo zeuk berotzeko **sexu-asmoa** egotea. **Baina bi baldintzak bete behar dira nahitaez,** ez nahikoa bat betetzea. Sexu-asmorik ez dagoenez, ezin da inoiz aplikatu.

Isuna ipiniz gero, **guregana edo hurbilen duzun elkarte naturistarengana jo ezazu.**